



# AUTONOMIATIK SUBIRAUTZARA

Estatus berri baterako oinarriak

**ehbildu**



# AUTONOMIATIK SUBIRAUTZARA

Estatus berri baterako oinarriak

## 0.- SARRERAKO OHARRAK

Proposamen honetako hausnarketa botere politikoaren lurralde-egituran gertatzen ari den **paradigma-aldaketaren** barruan kokatzen da. Paradigma-aldaketa horren laburpena egin dezakegu, besteak beste, honako deriba kontzeptual hauekin:

**1. Naziotik herrira.** Nazio-komunitatearen ideiarri garrantzia inolaz ere kendu gabe, gure herrian sakontze demokratikoa herri-subjektuari loturik dago, Euskal Herriko lurralde guztietako herritarren multzoari. Ezkerreko subiranismoa aitzindari da herritartasunaren kontzeptualizazio unibertsal horretan: "euskal herritarrak dira Euskal Herrian bizi diren eta lan egiten duten pertsona guztiak".

**2. Ordezkaritzatik parte-hartzera.** Herri-subiranotasuna ez da soilik ordezkaritzen bitartez adierazten; herritarren zuzeneko ahotsa eta hausnarketa horizontal eta integratzailea behar-beharrezkoak dira. Nolanahi ere, adostasuna bilatzeak ez du eragozpen izan behar gehiengoan borondatea gauzatzeko.

**3. Eskubideen zerrendetatik berme eraginkorretara.** Herritarren eskubide eta askatasunak babesteko, horien aitortzen formala baino gehiago, eskubide eta askatasun horiek benetan gauzatu direla ziurtatzen duen berme-sistema eraginkor bat izatea lortu behar da.

**4. Kontzeptuen nominalismotik prozedurazko ikuspegira.** Kontzeptu abstraktuen gaineko eztabaida nominalistak gaindituta, subiranotasunaren gaiarekiko prozedurazko hurbilketari ematen zaio lehentasuna, pentsamolde pragmatiko anglo-saxoiaren ildoari jarraikiz.

**5. Autonomiatik subiranotasunera.** Autogobernua eta haren etorkizuneko garapena ez daude estatuaren botere zentralak egindako esleipenen baten mende, baizik eta euskal lurraldeetako herritarren herri-subiranotasunaren mende.

**6. Une jakin bateko autodeterminaziotik erabakitze eskubidera, prozesutzat hartuta.** Autodeterminazio-eskubidea une jakin batean baliatzeko ikuspegi klasikoak indarra galdu du erabakitze eskubidearen prozesu-ikuspegiaren aldean; prozesu horretan, sorrerako uneak ukatu gabe, euskal herritarren borondatea eta borondate horren gauzatze juridiko-politikoa bat etortzea lortu nahi da, modu dinamikoan eta hausnartuta.

**7. “Espainian txertatzetik” planteamendu autozentratu eta eratzaile.** Onartzen badugu estatus berria ez dela izango euskal Estatu bateratu independente bat, euskal herritarren premiei eta irrikeri erreparatuko dien ikuspegitik begiratu behar dugu, hau da, herritarren borondate eratzaileri.

**8. Autonomia Erkidegotik euskal Estatura.** Euskal herritarren borondatea gauzatzen duen subjektu juridiko-politikoari buruzko trantsizio kontzeptuala garrantzitsua da: euskal estatua izatea autogobernuaren bermea da, eta foraltasun historikoari ez ezik, kontzeptu demokratiko modernoari –federazioa, esaterako– ere erantzuten dio. Euskal Estatua edo Euskal Estatu Erkidegoa (subiranoa) izenak kualitate juridiko-politiko ukaezina adierazten du.

**9. Eskumen-banaketatik politika publikoetara eta botere-funtsera.** Euskal autogobernuaren proposamen hau garatzeko garaian ez dugu egin eskumenen esleipen edo banaketen arabera, horrelako kasuetan partekatutako erabakitze gune horiek Espainia ia jaun eta jabe den guneak izan ohi dira eta. Politika publiko jakin batzuei dagozkien eskumen eksklusibo integral eta baldintzarik gabek proposatu ditugu, eta euskal Estatuari edo Euskal Estatu Erkidegoari dagozkie botere-funtsa, hau da, soilik estatu zentralari dagozkionak kenduta, gainerako eskumen guzti-guztiak.

**10. Top-down lurraldetasunetik (goitik behera) bottom-up (behetik gora) lurralde-egiturara.** Euskal lurraldetasunaren kontzeptualizazio berriaren arabera, dela Euskal Herriko lurralde historikoen artean, dela lurralde bakoitzaren barruan, unitate politiko handiagoetan bat-egin ahal izateko lurralde-espazio txikiagoetako herritarren borondatean oinarritu behar da.

**11. Zentralizaziotik subsidiarotasunera eta hurbiltasunera.** Erabaki bat hartzean, erabaki hori aplikatuko den giza espaziotik eta lurralde-espaziotik ahalik eta gertuen hartu behar da, demokraziaren eta eraginkortasunaren logikari jarraikiz.

**12. Prozesuaren alde bikotasunari edo alde bakarrekotasunari lehentasuna ematea ardatz duen eztabaidatik aldean arteko benetako harreman paritarioa bermatzera.** Egiazko alde bikotasunaren eskaintza etengabe egiten da, baina ez du geldiarazten euskal esparruan dauden gehien-  
goak ardatz dituen prozesu bat: **“geldiarazten ez duen elkarrizketa”**.

## 1.- ATARIKOA

1. Ezinbestekoa da honako printzipio hauen interpretazio bateratua eta integrala egitea: demokrazia, legezketasuna, pluralismoa. **Legezkotasunaren printzipioa ez da printzipio demokratikoa garatzeko muga**, baizik eta bidea eta markoa; hain zuzen ere, euskal herritarren borondatea modu ordenatuan adierazteko bide egokia, eta proiektu politikoak berdintasunean gauzatu ahal izateko markoa.

2. Gure gizartean dagoen ideologia-aniztasuna onartuta, euskal lurraldeen estatusari buruzko proiektu politiko guztiak bide demokratikoen bitartez defendatu eta gauzatzeko aukera izan behar da. Ahalik eta adostasunik zabalenak bilatu behar ditugu, baina **ez dugu onartuko kanpoko edo barruko instantzia politikoetatik etor daitekeen betorik**. (Euskal) lurretako gehiengoaren borondatea ezin da mugatu (Espainiako) Estatuaren eskalan gutxiengo iraunkorra izategatik.

3. Proiektu kolektiboak gauzatzeko, euskal herritarren gehiengoak demokratikoki adierazitako borondatea da baldintza eta muga bakarra, betiere giza eskubideak errespetatu eta bermatuta, baita gutxiengoaren eskubideak ere. **Euskal herritarren borondatea da beren estatus politikoa eta lurralde-estatusa zehazteko oinarritzko irizpidea**, eta herritarren auto-antolatze-ahalmenean eta estatuarekin nolako eta zenbaterainoko harremanak izan nahi dituzten erabakitze-ahalmenean gauzatzen da.

4. Euskal herritarrek beren estatus politikoarekin lotutako borondate politikoa libreki adierazteko aukera bideragarri eta bermeduna eskaini behar du legeriak. Aukera edo bide hori **–erabakitze- eskubidea– formalki aitortu behar da eta bide hori baliatzeko baldintzak estatus berrian jaso behar dira**.

5. Estatutua aldatzeko prozesuari aplikatutako legezketasun-printzipioa prozedurarekin loturik dago, ez erreformaren edukiarekin. **Erreformaren edukia ezin da mugatu egun indarrean dagoen legerian xedatuta dagoen horretara edo legeriaren egungo interpretaziora**. Bereizi egin behar dira, alde batetik, hasierako prozeduraren legezketasuna –Estatutua aldatzeko araututako prozedura onartzea– eta, bestetik, estatus berriaren proposamenaren eduki materialaren legezketasuna, azken hori ezin baita ab initio aldarrikatu. **Legezketasun formal eta materialaren kudeaketa dinamikoa da eta hura zilegiztatzen duen printzipioa demokratikoa da, prozesuaren une bakoitzean neurtuta**.

## 2.- SUBJEKTU POLITIKOA

1. “Euskal nazio politikoa” aitortzea elementu garrantzitsua da, autogobernuaren maila gorena lortu nahi duen nazio-sentimendu iraunkor bat izatearekin lotzen baitu erabakitzeko eskubidea.

2. Dena den, autogobernua zilegiztatzen duen titulu nagusia ez da jada nazio baten historia edo existentzia, termino klasikoan arabera, instituzionalizatutako komunitate politiko baten borondatea baizik. Hortaz, **Euskal Herriaren subiranotasunaren subjektua euskal herritarrek dira**. Alde batetik, baldin eta euskal nazio-komunitatearen ideia jasotzea komeni bada ere, bestetik, ezinbestekoa da erabakitzeko eskubidea Euskal Herri moduan egituratzen diren herritarrei atxikitzea.

3. Ildo beretik, **Estatus berriak berariaz jasoko du euskal herritarren erabakitzeko eskubidea, eta horrekin batera, eskubide hori benetan gauzatzeko prozedura zehatz eta eraginkor bat ere bilduko du, subjektu politiko eta juridiko gisa**. Halaber, botere eratzaille jatorrizkoa edo subiranoa du, eta beste botere-esparru batzuekin partekatuta zabal daiteke botere hori, betiere borondateen adostasun librean oinarrituta.

4. Euskal Herria osatzen duten aldetik, **Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako euskal lurraldeak osatzen dituzten herritarrek**, beren antolamendu-markoa eta harreman politikoak libreki eta demokratikoki erabakitzeko eskubidea baliatuz, **Euskal Estatu Erkidegoa osatu dute**.

5. Aurrekoari jarraikiz, Espainiako konstituzio-eredua zehaztea estatus berriari ez dagokion arren, **Espainiako sistema politikoa egitura (kon)federal bihurtzea edo forma hori hartzea komenigarria litzateke**, nazio anitzekoa izanik eta nazio (kon)federatuen erabakitzeko eskubidea –betiere adostutako prozedura baten arabera– onartuko duena.

6. Gaur egun, zaila da Konstituzioan erreforma bat egitea Estatu espainolaren nazio-aniztasun juridiko eta politikoa formalki eta esanbidez ezartzeko, eta Euskal Herriaren subiranotasuna/ botere eratzaillea eta estatu-izaera onartzeko.

7. Bideragarriagoa izango litzateke Espainiako Konstituzioaren atariko tituluan biltzen den printzipio demokratikoaren interpretazio ireki eta integrala egitea, 1979ko Autonomia Estatutuaren eta Konstituzioaren beraren xedapen gehigarrietan jasotako eskubide historikoen printzipioarekin eta xedapen-printzipioarekin batera. Printzipio konstituzional horiek ahalbidetzen dute lurralde-botereen arteko harreman berri baterantz, berdintasun politikoan oinarritutako harreman baterantz aurrera egitea, Espainiako Konstituzioan erreforma espresurik egin gabe.

### 3.- ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

1. Erabakitzeko eskubidearen kontzeptua autogobernuaren garapen eta sakontze demokratikoarekin koherentea da. Kontzeptu hori hainbat modutara adierazten da. **Lehenik, Euskal Estatu Erkidegoaren estatusarekin lotutako lurralde-alderdiei aplikatu dakieke**, Estatu espainolarekiko harremanean eta Europako nahiz nazioarteko markoan benetako alde bikotasuna bermatzeko sisteman, baita Euskal Herriko beste lurralde batzuekiko harremanean ere. **Bigarrenik, funtsezko politika publikoak parte-hartzearen bidez lantzean proiektatuko litzateke.**

2. Euskal Herriaren subiranotasuna euskal herritarren erabakitzeko eskubidearen bitartez adierazten da; subiranotasun hori printzipio demokratikoan oinarritzen da eta Estatu espainolak aitortu egin dezake Konstituzioaren babespeko printzipioen eta eskubide historikoen markoan.

3. **Estatus berrian, euskal erakundeek herri-kontsultak eta erreferendumak egiteko, arautzeko eta kudeatzeko ahalmena izango dute**, bai dagokion eskumen-esparruko gaiei buruz, bai Euskal Herriko beste lurralde batzuekin, Estatu espainolarekin eta Europako nahiz nazioarteko beste espazio politiko batzuekin izan nahi dituzten harremanei buruz.

4. Estatus berrian, **bai euskal herritarren erabakitzeko eskubidea espresuki aitortuko da, baita eskubide hori aurrez finkatutako mugarik gabe benetan gauzatzeko prozedura zehatz eta eraginkor bat ere bilduko da.** Hausnarketa-prozesuen balioari lehenetsua emanaz, Euskal Estatu Erkidegoaren lurralde-estatus juridiko-politikoak **ondo ondo hiru fasetan gauza liteke**; hona hemen hiru faseak:

**A) Herritarrei Euskal Estatu Erkidegorako zer estatus juridiko-politiko nahi duten galdetzeko eskubidea.** Lehen kontsulta horrek adierazpen-balioa izango luke eta hurrengo urratsak gaituko lituzke, baina juridikoki ez litzateke loteslea izango. Gaur egungo egoeran, kontsulta adierazle/gaitzailea estatus berriaren testu artikulatuari buruzkoa izango litzateke. Estatus berrian, etorkizunean edozein estatus motari –baita independentziari ere– buruzko kontsulta adierazle/gaitzaile bat proposatzeko aukera –herri-ekimenak bultzatutakoa ere izan liteke– aurreikusiko da.

**B) Estatuarekin berdintasunean oinarritutako negoziazioa hasteko eskubidea, ekimen gaitzailean proposatzen den harreman-ereduari buruz akordioa lortzeko.** Gaur egungo egoeran, “erabakitzeko eskubidea barnean hartuko duen ordenamendu berria” erabakiko da. Estatus berrian, negoziazio hori bereizketa edo sezesioari buruzko balizko erreferendum baten terminoen gainekoa izateko aukera aztertu behar da.

**C) Estatuarekin negoziatu eta akordio batera iritsi ostean, harreman-modu berria juridikoki loteslea izango den beste erreferendum baten bidez berretsi eta gauzatu ahal izateko eskubidea.** Gaur egungo egoeran, erreferendum hori estatuarekin adostutako estatus berriari buruzkoa izango litzateke. Etorkizunean, sezesioari buruzko erreferenduma estatuarekin adostutako terminoetan egitea bideragarria izan beharko litzateke, eta Europako zehaztasun-arau baten menpe.

**5. Autogobernuaren berme-sistemaren esparruan erabakitzeko eskubideari dagokionez.** Berme-sistema lurralde-betoko formularen batekin –eguneratutako foru-baimena– osatuko da, betiere euskal herritarrei kontsulta egiterik izanez gero dagozkien batzorde paritarioetan blokeo gaindiezina gertatuko balitz.

**6. Euskal Herriko beste lurralde batzuekiko harremana erabakitzeko eskubideari dagokionez.** Euskal Estatu Erkidegoak Euskal Herriko beste lurralde batzuekin dituen harremanak lurralde horietako herritarren borondatearen arabera arautuko dira, ez beste inola. Estatus berrian, **Euskal Herriko lurraldeen artean egituratzeko edo lankidetza funtzionalean jarduteko egitura berriak sortzeko aukera aurreikusiko da**, eta egitura horiek lurralde bakoitzeko herritarrek berretsi beharko lituzkete erreferendum batean.

**7. Funtsezko politika publikoei buruz erabakitzeko eskubideari dagokionez.** Estatus berriaren oinarrietan jasoko da herritarrek gai publikoetan zuzenean parte hartzea bultzatzeko konpromisoa, baita herritarrentzat **garrantzi eta interes bereziko gaiei buruzko erreferendumak egiteko aukera ere.**



#### 4. ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK

**1. Estatus berriak oinarrizko eskubide eta askatasun indibidual eta kolektiboak aitortuko ditu,** herri-subiranotasunaren adierazpide diren aldetik eta, beraz, euskal herritarren berdintasunaren eta kohesioaren adierazpide.

**2. Euskal Estatu Erkidegoak eskubideen bere zerrenda arautu eta aplikatzeko adinako erabaki-ahalmena izango du,** berme-sistema baten barruan; sistema horretan euskal botere judiziala funtsezko pieza izango da.

**3. Eskubideen bere zerrenda ezartzeko aukerarekin batera, Espainiako Konstituzioan, Giza Eskubideen Europako Konbentzioan, Oinarrizko Eskubideen Europako Gutunean eta gaiari buruzko gainerako nazioarteko itunetan aitortutako oinarrizko eskubideak libreki garatzeko araugintza-ahalmena izan beharko luke** Euskal Estatu Erkidegoak, baina horretarako Espainiako araudi organikoaren eragiteko gaitasuna mugatu beharko litzateke. Lege organikoek debekatuta izan beharko dute botere publikoaren banaketa-sisteman eragitea eta “zuzenbidearen funtsezko nukleoa” arautu baino ez lukete egin behar, euskal erakundeen garapen osatuagoak eta bermatzaileagoak mugatu gabe.

**4. Ildo beretik, babes-klausulak** ezarri beharko lirateke eskubideak arautzen dituzten tituluetako edozein xedapen interpretatzea, aplikatzea edo garatzea eragozteko, baldin eta eskubide horiek euskal herritarrek jada baliatzen dituzten eskubideak murriztu edo mugatuko balituzte; halaber, euskal botereak nazioarteko itunetan aitortutako eskubideei atxikitzeak klausulak ere ezarri beharko lirateke.

**5. Euskal Estatu Erkidegoan** jarduten duten botere publiko guztiak estatus berrian araututako eskubideen eta askatasunen markoari atxiki beharko litzaizkioke.

**6. Demokratizazio bermatzailea** bultzatze aldera, **erakunde-arkitektura berri bat ezarri beharko litzateke, botere-banaketa klasikoaren** –legegilea/betearazlea/judiziala– **printzipioa indartu** eta bereizketa-premian dauden beste esparru batzuetara ere zabalduta: publiko-pribatua (publikoa den hori merkatuko agenteek koloniza ez dezaten), publiko-politiko (alderdiek erakundeak koloniza ez ditzaten) eta sozial-politiko (alderdiek gizartea koloniza ez dezaten). Ildo beretik, interesgarria izango litzateke Euskal Estatu Erkidegoan **“laugarren botere” sozial-herritar bat instituzionalizatzeko** aukera proposatzea.

**7. Euskal Estatu Erkidegoan eskubide zibil eta politikoak baliatzeko marko seguru bat eskaini behar da,** herritarrek ez daitezen egon beren borondate kolektibotik kanpoko legeria murriztailearen menpe, eta egun gure esparruan indarrean daudenak baino estandar bermatzaileagoak aplikatu ahal izateko.

**8. Bigarren eta hirugarren belaunaldiko eskubide sozialak** formalki aitortu behar dira eta, gainera, **benetan baliatu ahal izateko beharrezkoak diren estatutu-berme guztiak izan**

**behar dituzte:** derrigorrezko aurrekontu-loturekin hasi eta oinarrizko errenta unibertsalarekin bukatu. Edukiak parte-hartzearen bitartez zehaztu beharko lirateke, gizarte-eragileei eta herritarrei ahotsa eta erabakimena emanda.

**9. Ondasun komunak berariaz babestea** ezinbestekoa da, baita **produkzioaren, finantzen eta energiaren arloetako gako-baliabideen kontrol publikoko (estatuak eta/edo gizarteak) tresnak finkatzea ere.**

**10.** Eskubideak eta askatasunak arautzean, Euskal Herriko komunitatean lurraldearteko elkartasuna eta kohesioa indartzeari erreparatu behar zaio, betiere gaur egun artikulatuta dauden lurralde-esparru bakoitzeko herritarren borondatea izanik oinarri. **Euskara funtsezko kohe-sio-elementu bat da, horregatik, ezinbestekoa da gure esku uztea euskal herritarren hizkuntza-eskubideak gure erara eta baldintzarik gabe arautzeko aukera.**

## 5. HARREMANAK ESTATU ESPAINOLAREKIN ETA BESTELAKO NAZIOARTEKO HARREMANAK.

1. Euskal Herriaren subiranotasunean oinarritzen da autogobernua, eta Euskal Herrian datza Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako; Lapurdiko, Nafarroako, Nafarroa Behereko eta Zuberoako lurraldeetako herritarren borondate libre beren artean politikoki lotu eta artikulatzeko, mekanismo demokrati-koen bidez eta erkidego gisa beren etorkizuna libreki erabakitzeko duten eskubidea egikarituta.

2. Estatus politiko berriaren bidez, egungo Euskal Autonomia Erkidegoa (Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba) erabakitzeko esparru politiko subirano gisa artikulatzen da, Euskal Estatu Erkidego gisa eratu beren herritarren borondatearen bidez, zuzenean demokratikoki eta beren erakunde legitimoen bidez adierazitakoa.

### 3. Berdintasun politikoko printzipioaren gainean artikulatuko dira Euskal Estatu Erkidegoak Estatu espainolarekin dituen harremanak.

4. Estatu espainolarekin duen berdintasun politikoko printzipioak erabakitzeko esparru propioa bermatzen dio Euskal Estatu Erkidegoari, eta **gaitasun normatibo eta exekutibo eskusibo eta baldintzarik gabea** izango du euskal lurraldean eta bertako herritarrengan esparru horietan ezarriko diren politika publikoen gain.

5. Politika publikoen irizpidearen gainean egikarituko da erabakitzeko esparruak Estatu espainolarekin banatzeko ezarriko den sistema, **dagokion lurralde-esparruan lege-organo nagusia euskal erakundeak izango direla bermatzeko**, lurralde-autoerregulazioko eredu bati jarraikiz; horrekin batera, administrazio arrunta artikulatuko da gobernu-argitasun nahikoarekin, zeina botere publikoaren funtzio exekutiboak egikaritzearen eta bere lurraldearen barruan zerbitzuak ematearen arduradun izango den.

6. Euskal subiranotasuna bermatuta, eta elkarrekin adostuta, **espainiar eskala estatalean edo konfederalean arautu ahalko dira zenbait gai**, kasuan kasu ezarriko den lurralde-ereduaren arabera. Lurraldeen eta euskal herritarren gaineko araudi horien arau-garapena eta egikaritzapena euskal erakundeen eskumena izango da, aurkako alde biko akordiorik ezean.

7. **Kontzertu Ekonomikoaren Sistemaren erregimen finantzario, ekonomiko eta fiskala eguneratuko da.** Bere izaera konfederalean sakonduko du estatus politiko berriak, eta Estatuarekiko harreman ekonomikoko markoak gainditu egingo ditu erabaki subiranoak hartzeko gaitasunarekiko dituen mugak –finantza-esparruaren aitorpenik eza, joera uniformatzailea Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua erreformaren ondoren, mugak haren printzipio informatzaileei, gastu publikoaren estatu-inposaketa– eta higadurak.

8. Estatus berriak Estatu espainolaren eta Euskal Estatu Erkidegoaren arteko harremanetan molde **konfederaleko alde biktasun bat ziurtatzen duen berme-sistema** bat arbitratuko du. Lankidetzan oinarrituko da harremanen erregimena eta ez da inolako inposaketa edo hertsadurarik onartuko.

9. Berme-sistemaren gune instituzionala Estatu Espainolaren eta Euskal Estatu Erkidegoaren arteko Aldebiko Batzorde paritarioa izango da. Erakundearteko lankidetzara eta gatazkak konpontze-  
ra bideratutako zenbait funtzio hartuko ditu bere gain batzorde horrek. Euskal autogobernuaren  
esparrua babesteko beste prozedurazko mekanismo batzuek osatuko dute berme-sistema: “alerta  
goiztiarreko” sistemetatik foru-baimenaren figuraren eguneratze eta demokratizatzeraino. Ildo  
horretan, **gai eztabaidatsuei buruzko herri-kontsultak planteatzeko aukera hartuko da bar-  
nean.**

10. Euskal Estatu Erkidegoak **erabakitzeko gaitasuna izango du eraginpean hartuko dituen na-  
zioarteko akordioei buruz.** Erabaki horiek hartzeko artikulatuko diren aldebiko edo alde anitzeko  
tresnek Euskal Estatu Erkidegoaren botere subiranoaren funtsa errespetatuko dute.

11. Aldebiko prozedurei jarraikiz arbitratuko dira Estatu espainolarekin batera **euskal erakundeek  
Europar Batasuneko organoetan izango duten benetako ordezkariak eta parte-hartzea eraba-  
kitzeko mekanismo egokiak.** Europar Parlamenturako ordezkariak hautatzeko hauteskunde-le-  
geriak Euskal Estatu Erkidegoaren hauteskunde-barruti propioa aitortu beharko du.

12. Euskal erakundeek jarduteko gaitasuna izango dute nazioarteko harremanen alorrean beren  
erabakitzeko gaitasun propioaren esparruan, **zuzeneko ordezkariarekin beste estatu eta na-  
zioen aurrean,** eta nazioarteko erakunde guztietan inolako bitartekotzarik gabe parte hartzeko  
gaitasunarekin, Estatu espainolarekin ezarri ahalko diren lankidetzak-mekanismoak alde batera  
utzi gabe.

## 6. EUSKAL HERRIAREN LURRALDE-ARTIKULAZIOA ETA EUSKAL ESTATU ERKIDEGOAREN BOTEREA.

**1. Zuzenbide demokratikoko estatua osatzen duten hiru botereak izango ditu Euskal Estatu Erki-degoak**, eta botereak bereizteko eta elkar kontrolatzeko eredu bat artikulatuko du, botere publikoen arbitrariotasunaren debekua zein euskal herritarren eskubide eta askatasunak bermatuko dituen.

**2. Laugarren botere sozial-herritar bat instituzionalizatzea proposatzen dugu**, botere horren bidez herritarren proposamenak bideratzeko, jardun instituzionala kontrolatzeko eta Euskal Estatu Erkidegoak bultzatutako politika publikoak ebaluatzeko.

**3. Estatus politiko berriak Euskal Botere judiziala** aitortuko du, gainerako botere politikoez independentea, eta Justizia Administrazioaren egungo deszentralizazio-eredua gaindituko du, antolamenduko eta planta judizialeko eredu propioa ezarri, hori guztia **Euskal Auzitegi Goren** batekin burutuz.

**4. Euskal Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia** sortuko da gobernu judizialeko organo gisa, Eusko Legebiltzarraren Legeak ezartzen duen ereduaren arabera. Euskal Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren mendeko **Euskal Eskola Judizial** bat ere sortuko da.

**5. Berme Batzorde** bat sortzea aurreikusiko du estatus berriak, eta barruko eskumen-banaketaren arloko gatazkak izanez gero, nahitaez informatuko du batzorde horrek modu ez loteslean, baita estatus berriak araututako funtsezko eskubideen urraketen kasuan ere.

**6. Barruko botere politikoaren egungo banaketa-eredua izango du abiapuntutzat estatus politiko berriak.** Eusko Legebiltzarraren lege bati egokituko zaio erakunde erkideen eta lurralde historikoen arteko eskumen-banaketa eguneratzea, eraginkortasun-, deszentralizazio- eta subsidiariotasun-printzipioaren arabera.

**7. Lurralde historikoen finantza- eta zerga-autonomia aitortuko du** estatus berriak, erakunde erkideen harmonizazio-gaitasuna alde batera utzi gabe, interes orokorrak hori eskatzen duenean.

**8. Estatus berriak diru-sarreren eta gastu publikoen arloan dauden lankidetzak eta koordinazio-tresnak indartuko ditu**, eta barnean hartuko ditu Euskal Estatu Erkidegoko hiru erakunde-esparruak: erkideak, foralak eta tokikoak. Era berean, Euskal Herriko beste lurralde-eremu batzuekin elkarlanean aritzeko guneak irekitzeko aukera ere aurreikusiko da.

**9. Lurralde Historikoetako Batzar Nagusien funtzionamendua deszentralizatzeko bideak arbi-tratuko dira**, baita herritarrek politika publikoen diseinuan izango duten parte-hartzea bultzatzeko ere, eskualdeen eta haranen bidez.

**10. Toki-araubideari buruzko eskumena** Euskal Estatu Erkidegoarena izango da eskusiboki eta baldintzarik gabe, eta erkidegoaren barne-antolamenduaren zati izango da, Estatu zentralaren esku-hartzerik gabe.

**11. Euskal udalerrriak benetako euskal lurralde-botere gisa** eratuko ditu euskal estatus politiko berriak, autonomia politiko eta finantzarioarekin, indarreko estatutuan horren inguruan dagoen hutsunea zuzenduz.

**12. Toki-autonomiaren printzipioak beren parte-hartzea bermatuko die toki-erakundeei auzotarren interesak zuzenean eraginpean hartzen dituzten gai guztietan,** zerbitzu publikoak ematen dituzten erakunde soilen ikuskeratik edo administrazio-deszentralizazio simple baten emaitzatik haratago. Udalerrriak leku propioa izango du euskal botere publikoaren barne-banaketako ereduaren ondoriozko egitura instituzionalean.

**13.** Euskal Herria, arrazoi politiko eta historikoak tarteko, eta ez beti bere herritarren borondateari jarraikiz, esparru instituzional desberdinetan dago artikulatuta gaur egun. Estatus berriak, lehen adierazi dugun bezala, marko instituzional guztietako herritarrek lurralde-eremu instituzional erkide batean libreki lotzeko duten eskubidea aitortuko die herritar horiei, lurralde-esparru bakoitzeko herritarren borondatearen arabera.

**14.** Horrekin batera, Euskal Estatu Erkidegoko **erakundeek erabaki politiko eta juridikoari lotutako gaitasun nahikoa izango dute harreman funtzionalak izateko eta modu partekatuan erabakiak hartzeko mekanismoak demokratikoki artikulatzeko Nafarroarekin eta Ipar Euskal Herriarekin,** kanpo-mugarik gabe.

**15. Euskal Herriko lurraldeen arteko artikulazio instituzional eta funtzionalak eredu konfederal bati erantzungo dio,** eta ekintza erkideko edozein gune –instituzional edota eskumenezkoa– **lurralde-eremu bakoitzaren herritarren borondate librearen ondorio izango da.** Eta hori guztia alde batera utzi gabe borondate demokratiko horretan oinarrituta Euskal Herri osorako proiektzioa duten molde federaleko marko juridiko-politikoak adosteko aukera.

**16.** Zehatz-mehatz, **espresuki aitortuko da Euskal Euroeskualdea gobernantza-eredu demokratiko baten arabera eratzeko borondate politikoa,** eta, horretarako, erabakitze-mekanismoak behetik gora artikulatuko dira, Euskal Estatu Erkidegoak, Nafarroako Foru Erkidegoak eta Ipar Euskal Herriko Euskal Mankomunitateak osatzen duten erabakitzeko esparru komunaren barruan, eta, halaber, Europako Eskualde Politikan zehaztuta dauden lurralde-lankidetzarako tresnak presatutako dira (adibidez, 1082/2006 Araudia).

**17. Mekanismo demokratikoak arbitratuko dira, halaber, Trebiño eta Turtzioz Euskal Estatu Erkidearen barruan egon daitezen,** bertako herritarrek libreki hori erabakitzen badute eta horretarako oztopoak desagerraraztea bultzatzen duen borondate politikoa adierazten bada.

**18.** Euskal Herriko komunitate globalak ere –diaspora barne– **aitorpena izango du** estatus politiko berrian, eta **harreman-mekanismo egonkorak izango ditu Euskal Estatu Erkidegoarekin.**

## 7. EUSKAL ESTATU ERKIDEGOAREN ESKUMEN-ESPARRUA.

1. Estatus politiko berriak **erabakitzeko esparru propio zabal bat** bermatuko die euskal erakundeek, hau da, esparru material, eskusibo eta baldintzarik gabea; erakundeek erabakitzeko duten ahalmena nagusituko da esparru horretan eta **ez da Estatu Espainoleko erakundeen kanpoko eta aldebakarreko injerentziarik izango.**

2. Estatu Espainolarekiko harreman subiranoaren marko berrian, Euskal Estatu Erkidegoak izango du **euskal gizarteari zuzenean eragiten dioten gai guztiei buruz erabakitzeko ahalmena, hurbiltasun-printzipioaren arabera.** Bereziki euskal herritarren duintasunarekin eta bizi-kalitatearekin lotutako politika publikoak garatzea eta lurraldeko baliabideak antolatzea ahalbidetzen duten gaiei buruz erabakitzeko ahalmena izango du.

3. Erabakitzeko euskal esparruan, euskal erakundeek erabakitzeko ahalmen nagusia dute eta arau-ahala eta betearazpen-ahala osotasunez egikaritzen dituzte. Esparru material horretan, Espainiako estatu-erakundeek ez dute euskal lurraldean zuzenean jarduteko ahalmenik izango, eta lurralde horretan garatzea nahi duten edozein jardun egikaritzeko euskal erakundeek zuzenean jarduna beharko da, hala badagokio, betiere bi lurralde-botereen arteko alde biko akordioa bada- go aurretik.

4. Euskal herritarrei bizi-maila duina eta kalitatekoa bermatzeko, eta eskuragarri dauden baliabideen erabilera arduratsua eginez euskal lurraldeen garapen orekatua eta jasangarria errazteko, euskal erakundeek erabakitzeko **behar den ahalmen nahikoa izango dute ondoren aipatu-ko diren esparru materialetan erantzukizun eskusiboa** beren gain hartzeko, hala badagokio, eta horrela erabateko arau-ahala eta betearazpen-ahala izango dute beren politika publiko aplikagarriak garatu ahal izateko:

**A) Bizikidetzaren eta sakontze demokratikoaren arloko politikak.**

**B) Hezkuntzaren, kulturaren eta kirolaren arloko nahiz ikerketa-esparruko politikak.**

**C) Hizkuntza-politika eta Euskararen hizkuntza propioaren estatusari buruzko politika.**

**D) Gizarte- eta osasun-politikak.**

**E) Berdintasunaren eta babes sozialaren arloko politikak, gizarte-segurantzaren erregimena barne.**

**F) Politika soziolaboralak eta enplegu-politikak.**

**G) Politika sektorial ekonomikoak eta finantzarioak, lurraldearen plangintza eta antolamendu ekonomikorako ahalmenarekin batera.**

**H) Baliabide naturalen, lurralde-antolamenduaren, etxebizitzaren eta ingurumena-  
ren arloko politikak.**

**I) Jabari publikoaren kudeaketaren eta babesaren alorreko politika publikoa.**

**J) Azpiegituren, telekomunikazioen eta garraioen arloko politikak.**

**K) Komunikazioaren eta teknologia berrien alorreko politikak.**

**L) Herritarren segurtasunaren eta babes zibilaren arloko politikak.**

**M) Justiziaren eta espetxeen arloko politikak.**

**N) Euskal Herriko lurraldeekiko kohesioaren eta elkartasunaren alorreko politikak.  
Lurralde-lankidetzeta eta -artikulazioa.**

**O) Euskal komunitate globalari buruzko politikak: euskal herritarrak.**

**P) Estatu Espainolari espresuki erreserbatu ez zaizkion beste gai guztiak.**

**5. Euskal erakundeek politika publikoak arautzeko eta garatzeko dituzten ahalmenei dagokie-  
nez, erakunde horiek erabakitzeke duten ahalmenaren mugak honako hauek izango dira:**

**A) Funtsezko eskubideak.**

**B) Europako askatasunak.**

**C) Estatu Espainolak sinatu eta berresteaz gain, Euskal Estatu Erkidegoak bere gain har-  
tu dituen nazioarteko itunak.**

**D) Estatus politiko berrian espresuki onartutako eta Estatu Espainolarekin duen harre-  
man (kon)federaletik eratorritako mugak.**

**6. Estatus politiko berriak euskal erakundeentzat gordeko du euskal boterearen funtsa, eta,  
horretarako, gaur egun Estatuaren alde egiten duen eskumenen hondar-klausulari ikuspuntu  
plurinazionaletik irismen berria emango dion interpretazio bat sustatuko da (149.3 artikulua,  
EE)**



7. Euskal Estatu Erkidegoaren **politika publikoek despatriarkalizazioa eta genero-berdintasuna bermatzea izango dute helburu** alor guztietan, ezinbesteko baldintzak baitira erabateko burujabetza eta egiazko demokrazia lortze aldera. Helburu hori erdiesteko behar adina eskumen hartuko dira.

8. Euskal Estatu Erkidegoko herritarrek erabakitzeko ahalmen subiranoa eta demokratikoa izango dutela bermatzea lortzeko, euskal erakundeek beren eskumen-funtsaren barnean, **beren gain hartuko dute herritarren kontsultak edo erreferendumak arautzeko eta deitzeko ahalmena, inolako muga materialik gabe**. Beste lurralde-esparru batzuei eragiten dienean, kontsulta edo erreferenduma, lehenik eta behin, kontsultazkoa izango da, eta, sortuko du, hala badagokio, eraginpeko alderdiek fede onez negoziatzeko obligazio juridikoa, baita **geldiaraztekoa izango ez den elkarrizketarako eskubidea ere**, baldin eta alderdietako batek fede txarrez edo alde bakarretik jarduten badu.

9. Estatus politiko berriak euskal erakundeei **eskumen zabala aitortuko die kanpoko ekin-tzan eta nazioarteko harremanetan**, eta EBren erabakitzeko esparruetan benetako partaide-tza izateko mekanismoak ezarriko ditu, baldin eta esparru horiek erabaki propioak hartzeko euskal esparruari eragiten badiote.

## 8. ESTATUTUAK ALDATZEKO PROZEDURA.

1. Aldatzeko prozesua mekanismo demokratiko adierazgarriak, parte-hartzaileak eta zuzeneko demokraziakoak modu osagarrian sartuz garatu beharko da. Eztabaida kolektiboak, irekiak eta gardenak hasieratik iradoki behar du euskal marko juridiko-politiko berriaren lanketa.
2. Herritarren partaidetzaren hedadura eta intentsitatea aldaketari eman nahi zaion irismenarekiko zuzenki proportzionala izango da. Hala ere, txosten honetan egiten den proposamenak bokazio konstituziogi-lea du eta **herritarren benetako eta kalitateko partaidetza-prozesua izatea eskatuko luke.**
3. Herritarren ahalduntzea bermatzeko asmoz, parte hartzeko uneak bat etorri beharko luke autogobernu-oinarrien proposamen-fasearekin. Aldi hau irekia eta proposamenak egiteko denez, herritarrei benetako protagonismoa eman ahal zaie eta gida gisa erabil daiteke testu artikulatua egin aurretik **oinarriei buruz alderdiek hartuko duten ondorengo erabakirako.**
4. Estatus berriaren **testu artikulatuaren garatze teknika** erakunde independente bati dagokio, eta, ondoren, Legebiltzarreko eztabaida egingo da Eusko Legebiltzarrak aldaketa-proposamena onartzeko.
5. Testu hori onartu ondoren, zuzeneko demokraziaren lehenengo adierazpenari emango zaio bide-juridikoki **loteslea ez den kontsulta** gaitzaile baten bitartez-, euskal herritarrei estatus berriari buruzko proposamen artikulatua baliozkotzeko eta legitimatzeko aukera emango dien eta Estatu Espainolarekin negoziatzeko fasean euskal jarrera indartuko duen adierazpenari, hain zuzen ere.
6. Azkenik, berriro ere erakunde-esparruan garatuko litzatekeen eta Estatu Espainolarekiko akordio bat lortzea ekarriko lukeen azken **fase negoziatzailearen** ondoren, estatus berria **erreferendum loteslearen** bitartez berretsi beharko lukete euskal herritarrek, akordioa indarrean jarri aurretik.



